

Joseba Sarrionandia Euskal Herriaren bila

1998ko urriaren 21 eta 22an **Euskaldunon Egunkaria** periodikoan **Sarrik** argitaratutako artikulua da hau. Titulua: "Euskal Herriaren bila". Une hartan ETAk su-etena aldarrikatu berri zuen, Aznar presidente eta Mayor Oreja Barne ministro ziren garaian.

EUSKAL HERRIAREN BILA

Erbesteko pasarte bat. Ama eta alaba ispiluaren aurrean, ezpainak pindatzen. Alabak zazpi urte ditu, gurasoen erbestean jaio zen, gurasoak aspalditik Euskal Herritik urrun eta klandestinitatean bizi dira. Umeak euskaraz egiten du etxean eta erdaraz eskolan, euskalduna dela erakutsi diote euskaraz, baina ez du hitz horrentzat itzulpenik erdaraz, gurasoek inoiz esan ez diotelako. Hala ere nazionalitateaz arduratzen da azken aldian, badirudi hutsuneren bat nabaritzen duela hor. Goiz batez, ama ezpainak pindatzen ari dela, umea alboan eseri zaio logelako ispiluaren aurrean, ezpainak errimelez gorritatzera, amak bezala. Orduan aita heldu da:

- Aita, gu espainolak gara, ezta? -diotso umeak logelara sartu berria den aitari.
- Zergatik? -galdetu du aitak, harrituta.

Eta haurrak:

- Ezpainak pindatzen ditugulakotz...

Gartzelako pasarte bat. Puerto de Santa Mariako gartzelaraino heldu da ama, aspaldian preso den semea bisitatzerara. Trenez, bi eguneko bidaia astuna izan da. Sartzeaz batera abisatu diote semea zigortuta dagoela, bost minutuko bisita besterik ez duela. Sartzeaz batera metaldetektorea pasatu behar izan du funtzionarioen aurrean, lauzpabost bider pasatu behar izan du metaldetektorearen paretik bisitetara sartzeko baimena jaso arte. Bisita kabinara ailegatzean funtzionarioak esan dio:

- Si hablan en vasco se interrumpe la comunicación.

Zain egon da apur batean. Orduan semea ailegatu da, argala, ilea motz-motza, beltzarana, hala ere irribarrez. Eseri orduko, eskua atzamarrak zabaldua ipini du kristalaren kontra, amak entzun ez duen zeozer esan du mutikoak. Funtzionarioak ez du oraindik ahotsa alde batetik bestera pasa dadin sakatu behar duen interruptorea sakatu.

- Etxean zer moduz, ama?

Orain bai, entzun du:

- Ondo, oso ondo...

Eta mutilaren ezpainei begira geratu da, mugitzen ari dira, baina ez du deus entzuten.

- Queda interrumpida la comunicación por hablar en vasco.

Mutilak atzamarrak zabaldu ditu berriro kristalaren kontra, amak eskua eman nahi dio, kristal lau eta hotza besterik ez du ukitu kristalean...

Bi funtzionario etorri dira semearen bila, eraman dute, atzerunzka begira joan da. Ama, begitik malko lodi bat dariola geratu da kanpoaldeko funtzionarioen zain.

Iparraldeko pasarte bat. Anitz ziren etxean eta II. Gerla Handiaren ondoren Parisera joan ziren lan bila, bakoitza bere aldetik, Parisen topo egin, ezkondu eta seme-alabak izan zituzten. Zahartzaroan ia, erretreta hartu eta sorterrira itzuli dira. Euskaraz hitz egiten dute hegoaldeko mutilarekin:

- Gerlaondoa gogorra izan zen eskualde huntan -dio gizon zaharrak.
- Ez jan ez mintza... -dio andereak, esaldia aidean utziz.
- Guk umetan baginuen zigorra eskuaraz mintzatuez gero, **anti** deitzen zen, frantsesez bertzerik ezin ginuen egin eskolan...

Bestela, antia ezartzen zitzaion umeari.

- Eskualdunak ginen etxen -dio andereak-, baina atletik kanpora frantses izan behar...

Handiak eta tipiak

Oztopatutako identitate baten bila dabil pasarteotako jendea. Euskaldunak Euskal Herriaren bila gabiltza aspalditik. Estatu nazionalak eraiki eta finkatu ziren sasoiari kanpoan geratu ginen eta hor irau du, estatu propiorik gabeko herrikoak, hiritar espainol edo frantses bihurtzera behartuak.

Munduan badira nazio handiak, nazioi tipiak, eta nazio ikustezinak. Espainia eta Frantzia **nazio handiak** dira. Nazio handiek biztanle asko dituzte, konkistak egin dituzte historian zehar, El Cid eta Roland, El Duque de Alba eta Napoleon Bonaparte lako pertsonaia famatuak dituzte, nazioartean aintzat hartuak dira eta ez da diren ala ez diren zalantzarik planteatzen.

Nazio tipiek, ostera, biztanle guti dute. Irlanda eta Estonia dira, esaterako, **nazio tipiak**. Zatituak eta itxuraldatuak izan dira historian zehar, estatu propioa galdu ere egin dute sarritan, halako pertsonaia guduzale ospetsurik ez dute, eta apur bat bildurtuta bizi behar dute nazio handi bat alboan tokatu bazaie, tipitasunaren ondorioz, deskuidatuez gero, nazio diren ala ez diren ere zalantzak planteatuko zaizkielako. Nazioartean, hala ere, aintzat hartuak dira beren maila apalean.

Nazio ikustezinek nazio tipien ezaugarri eta arazoak dituzte, baina estatu propioa ere galdu dute, nazio handiek zapaldu eta tapatu dituelarik, edo ez dute estatu propiorik inoiz izan. Historiarik gabeko herriak dira, historiagile dezimononikoentzat. Nazio diren ala ez diren zalantzak dituzte, baina beren kexu eta asmoek oihartzun eskasa dute nazioartean, **nazio** handiek **ikustezinak** eta entzunezinek bihurtzen dituztelako.

Nazio handiak oso harroak dira, badituzte zeremoniak ugari beren larderia erakusteko, baina beren harrokeriarik handiena inkontzientea da: beren nazionalismoa hainbesteko naturaltasunez bizi dute, hain oharkabean ze, sarritan konfunditu egiten dutela beren kultura propioa kultura unibertsalarekin...

Nazio ikustezin eta entzunezinek batzuetan, tranpan erorita, auzoko handiaren kulturara integratzen dira, kultura unibertsalera integratzen direla ustez.

Aranismoa eta unanismoa

Euskaldunoi zaila egin zaigu gizarte modu zaharretik irten eta modernotasunera sartu ahala euskaldun izatea modu natural batez, espainoltasuna edo frantsesitasuna inposatu zaizkigu beti aurrerapauso lez. Baina espainol edo frantses ere ezin izan gara bilakatu modu naturalean, gure zati bat abandonatu ezik, bai Espainia bai Frantzia estatu nazionalistak izan baitira beti. Beraz, modernotasunak eta munduan parte hartu beharrak bi alternatiba zeharo desberdinen artean

aukeratu beharra planteatu digu euskaldunoi. Momentu historiko kritikotan hor ditugu aukera biak beren gorrian. XIX. mendearen amaiera aldean eta XX. mendearen hasieran esate baterako **Sabino Arana** eta **Miguel de Unamuno**ren jokabideak nabarmendu ziren, lehenak euskaltasuna aukeratzen zuela konplexuz eta artifizialtasunez betetako proiektu batean, eta bigarrenak euskaltasuna abandonatu eta euskaldunok espainolotasunaren erroa bihurtu nahi ginduela.

Euskal Herrian izan dugun tradizio espainola gutitu eta despreziatu beharrik ez dago. Tradizio aberatsa da, eta, bere eran, euskalduna. Baiona eta Bilbo euskaldunak diren eran behintzat: Miguel de Unamuno, Pio Baroja, Tomas Meabe eta oraingoak. Tradizio euskaldun horrek unerik larrietan beste aurpegi batzuk erakutsi dituen arren, zeren eta 36an, esate baterako, Miguel de Unamunok ezin izan zuen ezer egin, bere bizitzaren azken egunetan, Salamancan, ahalegindu zen arren, Millan Astray tradizio horren ordezkari behinena izan ez zedin.

Alternatiba bikoitz hori hor izan dugu euskaldunon historia estuan zehar batzutan larriago eta bestetan leunago, aspaldiko mendeetatik hona. Gerla lez, **frankismoa bigarren alternatiba inposatzeko ahalegin iraunkor bat izan zen, bai aranismoaren eta bai unamunismoaren aurka.** Frankismoak bere lana egin zuen euskaldungoa desegiteko, eta, giza-jendeak egiten dituen ekintzak sarritan ustekabeko ondorioak dituelarik, euskaldungoa desegin zuen hein batean, baina berbiztu ere egin zuen, ustekabean.

Jende askok uste zuen, frankismoari esker, **sintesi bat** lortuko zela bi joera horien artean, azkenerako posible izango zela euskaldun modu natural batez izatea. Bi tendentzien arazoak termino politikoetan autodeterminazioarekin eta demokraziarekin konponbide zibil erraza izango zuela. Euskaldunak ez zuela abertzale izan beharrik derrigorrez, baina ez zen hala izan, euskaldunak erresistente egoskorra izaten jarraitu behar izan du. Eta euskaldun espainiazaleak jarraitu du, hau ere ez zen espero, ez bakarrik Miguel de Unamuno aipatuz, baizik eta, geroago eta gehiagotan, Millan Astrayren kapotepean ezkutatu.

Orain, uda hondar honetan heldu diren albisteekin, esperantzaz betetako aukera aurkeztu zaigula ematen du. Lehenengo tradizioaren oinordekoek proposatu dute, baina bigarren tradizioaren oinordekoek ere onartu beharko lukete. Bai batzuek bai besteek Euskal Herria bilatzeko proposamena da. Batzuek bakarrik bilatuz gero herri zati bat besterik ez lukete aurkituko. **Denon artean igual osoa aurkituko dugu.**

Pentsatzekoa da Miguel de Unamuno gusturago sendituko litzatekeela eta batez ere libreago **Millan Astray**ren konpainiarik gabe. Millan Astray baita, oraingoaz, legez, Konstituzio Espainolaren begiralea. Ez Miguel de Unamuno.

Autodeterminazioa

Autodeterminazio hitza apur bat extrabagantea da. Ematen du berezko eskubidea dela, baina eskubideak ez dira berezkoak, baizik eta jendearen lorpen, izerdi eta odol truke atzemanak. Euskaldunok ez genuke autodeterminazio eskubiderik euskaldun lez identifikatuko ez bagina eta euskal herriari tankera politiko bat emateko borondate kolektiborik ez bagenu. Hau da, ez genuke autodeterminazio eskubiderik, egunero autodeterminatuko ez bagina.

Azken batean, nazionalitatea, **autoidentifikazio** edo autodefinizioan besterik ezin da oinarritu. Bere burua euskalduntzat duena euskalduna da, eta kito. Antropologiak eta historiak ikaragarriko lana egin ohi du, munduko politikagune guzietan, herritasunaren eta historiaren testigantzak jasotzen, moldatzen eta ber asmatzen. Antropologo eta historiagileen jakituria eta kreatibitatea ukatu beharrik ez da, baina nahiko absurdoa da gaur egungo arazo politikoak erudizio espekulatiboaren eskuetan

uztea, gizarte zibilaren eskuetan utzi beharrean, XX. mendean, jendea orohar nahiko kulto eta intelijentea denean.

Utz ditzagun El País-ekoak milenarismoaren ipuinekin, eta euskaldunen gogo desmitifikatzeko asmatzen dituzten beste mitoeekin. **Zergatik garen euskaldunak?** Arrazoi sinple batengatik, gure burua Espainia delako komunitate horren edo Frantzia delako komunitate horren partaide ezik, Euskal Herria deitzen dugun komunitate ikustezin eta entzunezineko partaidetzat dugulako.

Arrazoi demokratikoa sinplea da, baina, ulertuko ote dute espainiar eta frantses demokratek? Espainolek eta frantsesek, historian zehar, ez dute ulertu inork espainol edo frantses izateko posibilitatea izanda beste edozer nahiago izatea. Flandiarra? Portugesa? Bretoia? Ketxua? Arjeliarra? Tagaloa? Saharatarra? Euskalduna? Hara! Mila justifikazio eman beharko dizkiogu espainolari, benetako espainolari, hau da, espainol normalari, espainola ez zarela sinestarazi nahi badiozu. Nola da posible, gizajo tagalo hori -esango dizu espainol normalak-, normala izateko aukera izan eta anormala izatea aukeratzea? Sarritan jarriko digute oraindik euskaldunoi tonto nombretea, ez da makala izan ere, **sute handi bat egin ahal duenak su tipi bat egitea** hobestea...

Autodeterminazioa ez da formula nazionalista bat, benetako nazionalistak bere nazioa baturik eta independente besterik ezin du ametitu. Independentistek lortu behar dute unamunismoa ere integratzea herri lez sortu behar ditugun balio formula politiko amankomunen bilaketa horretan. Autodeterminazioa ez da formula abertzalea bakarrik. **Autodeterminazioa, sinpleki esateko, demokrazia behetik gora antolatzea da.** Orain arteko errejimen guziak euskaldunoi goitik behera inposatu zaizkigu, demokrazia espainol hau ere bai. Autodeterminazioa formula demokratiko eta ez-nazionalista bat da, autodeterminazioarekin Euskal Herriko tradizio biak aukera berdintasunean jartzen dira, bai independentismoa eta bai dependentismoa.

Ulertuko dute PSEko demokratek, esate baterako, nabarmenkeria hori? Ala Millan Astrayren kapotepean jarraituko dute beren pankartarekin? Autodeterminazioaren aurrean ematen diren jokabideetan, orain arteko atxakiak gabe, azaltzen ari da zein den nazionalista intransigentea. Euskaldun abertzaleak, orohar, eta denborak frogatuko duelakoan nago, nazionalista oso apalak dira **espainol sasiunibertsal** askoren konparazioan.

Euskal Errepublikaren sua

Autodeterminazioak ez du esan nahi euskaldunok zazpi probintzientzako estatu nazional batu eta independente bat lortuko dugunik. Euskal Errepublika hori asmoan dugun euskaldunok ere behetik gora hasi beharko dugu apurka apurka eraikitzen. Euskal probintzia gehienetan identifikazio espainolak dira nagusi eta hori ez da aldatzen gauetik goizera. Ene ustez, guk lortu behar dugu bai espainolek eta bai frantsesek onartu behar dutela **Euskal Herri izeneko komunitate bat** badela, eta komunitate hori errespetatu behar dutela termino kultural eta termino politikotan, hau da, euskaldunoi dagozkigun egitura politikoak geuk aukeratzeko eskubidea dugula.

Euskaldunen erabakien ondorioz, artean Euskal Herriaren zatiketa, edota Espainiarekiko eta Frantziarekiko dependentismoa nagusitzen den alorretan, egoera hori ametitu beharko digu eta lurraldetasunaren eta independentziaren aldeko lanean jarraitu, euskaldun espainolzaleek ere berdin, errespetatu egin beharko dute euskal errepublika independentearen proiektua...

Nazionalismo dezimononikoak ez du gaur egun zentzurik, ez dut uste euskaldunen asmoa Espainia eta Frantzia zaharren moduko estatu nazional itsusi bat eraikitzea izan behar denik. Europa eraikitzearekin soberania moduak ere aldatzen ari dira. Europaren kontestuan zaila da, baina lehenago egundo baino naturalagoa eta posibleagoa izango da Euskal Herria komunitate nazional bezala osatzea.

Ederra litzateke, ene ustez, Euskal Herriak bere tipitasunean **su propio bat biztea European**. Gaur egungo munduan, globalizazio eta uniformizazio tendentzia gogorren artean, herri tipien argiak itzaltzen ari dira. Munduko biztanleok zeozer galtzen dugu, kultura benetan unibertsalak zeozer galtzen du, gizajendea izateko modu desberdin horietako bat galtzen denean...

Munduari mesedea egingo diogu, auzoko handien suteak indartu beharrean, su propioa biztu eta mantentzen badugu, herri lez balio orokorrak sortzeko gauza bagara behintzat...

Gerla eta bakea

Azkenengo hogeitun urteak aro iluna izan dira Euskal Herrian, frankismotik ihalgintzean euskaldunek zituzten esperantza politikoak zapuztu egin zirelako, eta harrezkero urterik urte gerlaz zein bakez, bietara, zapuzketa mantendu delako.

Euskal Herriak onartu ez zuen Konstituzio bat ezarri zitzaion, demokratizat, Millan Astray begirale zekarrela. Haren kapotepean jarri ziren hainbat Demokrazia pankartarekin.

Baina ez hori bakarrik. Konstituziopeko estatutuarekin, EAJ eta enparauek Baskongadetako errejimenari Autonomía del País Vasco deitu zioten, euskal herriekin pars pro toto ariketa latza eginez.

Fernando Pessoa abisatu zuen: "A civilizacao consiste em dar a qualquer coisa um nome que lhe nao compete, e depois sonhar sobre o resultado...".

Burruka armatuak jarraitu zuen, jarraitu behar zuelako. Euskaldun askok, inposizio eta errepresioaren aurrean, erresistentzia beste biderik asmatu ez zutelako.

Gerlaetabake-ko hogeitun urte hauetan kondatu ahal diren baino harrokeria, krudelkeria, zentzugabekeria gehiago egin da. Baikorrak gaizki informatua edo tontoa ematen zuen, eta pentsamendu kritikoa ezkortasun arruntera erori behar izan da luzaroan.

Hogei urtez euskaldunok, orohar, okerrak luzatu besterik ez ditugu egin. Ez gara, ez batzu ez besteak, gure herriarentzako balio orokorrak proposatzeko gauza izan.

Gure eginbidea, euskaldun guziona, bai independentistena bai dependentistena, gertaeretatik ondorioak ateratzea da, okerrak eta kalteak errepika ez daitezen. Lizarrako bileran aurkeztu ziren alderdi eta gizarte mugimenduek, dirudienez, ondorioak atera dituzte. ETAK, gero, aparteko umiltasuna eta zintzotasuna erakutsi du protagonismoa herriari eman eta bere burua paper nagusitik apartatu duenean. **Aspaldiko ekintzarik ederrena eta eraginkorrena** izan da, dudarik gabe. Espainiako eta Frantziako indar armatuek, beren aldetik, ez dute treguarik eman eta desarmatzeko asmorik ez dute, gainera euskaldunek geure herria politikoki antolatzekeo dugun eskubidearen aurka badituzte eginbide definitu batzuk. Baina gutienekoa da. Alderdi politikoeke eta mugimendu sozialek protagonismoa hartzen duten neurrian militantziaren aspaldiko leloa konplutuko da: "Eman dezagun denok apur bat, apur batzuek dena eman beharrik izan ez dezaten". Gerokoaz, berriz, jakituria minimoaren aholkua besterik ez dugu: "Hoberena itxadon, txarrenerako prestatu".

Uda hondarrak argi berria ekarri du gure herriko ortzemugara. Euskaldunek trinkotasuna, zentzua eta batasuna erakusteko sasoa heldu da. Itzelezko itxaropena biztu da, baina itxaropen hori ez dadila izan nahi dugun herria itxaroteko asmoa, baizik eta nahi dugun herria egiteko gogoia.

ARGIA. 2000.

Joseba Sarrionandia: «Espainolek gutaz esaten dituzten gezur batzuk asumitu ditugu»



Literaturaz Zorionaz Bertsoa

Bost urte (1980tik 1985era) pasa zituen espetxean eta hogeit hamar bete ditu poliziarengandik ihesi. Aste honetan hogeit hamar urte bete dira -1985. urteko San Fermin egunean- Martuteneko espetxetik ihes egin zuenetik. Sarri Sarri kantuaren hotsak aspaldi moteldu ziren izuen gordeleketan barrena. Joseba Sarrionandiak artean, marinelen bidea hartu zuen eta txankuak soinean segitzen du munduan. Etxerik gabe ibiltzearen pribilegioa eta madarikazioa bizitzeko arrazoi bera dira Sarrirentzat. Alta bada, Kalaportura etorri ohi da aldian-aldian. Orain pare bat aste bertaratu ginen eta iheslariak galdetu genion portu-gidariari. Ez omen du egundo ikusi, baina mezua bere izenean utziz gero, ez duela erantzuteko usadioa galdu adierazi zigun. Mezuaren izenburua hauxe zen: ARGIAk 2000. zenbakia kaleratuko du aurki eta zurekin akordatu gara. Bera ere bai gurekin. Nola gogoratzen duzu ARGIA n idatzi zenuen garaia?

Ba gaztaroan ginen eta, gauza zailak egiteko ilusioa gogoratzen dut. Ez badituzu ilusioak hamazazpi edo hemeretzi urterekin, noiz izango dituzu ba. Eta gainera, frankismoa amaitzen ari zen eta, ordurako dena gertatua zela ematen zuen, dena amaitzen ari zela, eta dena orduantxe hasiko zela aldi berean, dena ordutik aurrera gertatuko zela. ARGIA n hiruko hura dut bereziki akorduan, lokalera helduta, Elixabetek, Pilarrek eta Lurdesek (Garmendia, Iparragirre eta Auzmendi, hurrenez hurren) osatzen zutena, eta besteak. Sasoi hartako aldizkaritik, Bixente Ameztoren azalak gogoratzen ditut batez ere.

Nola ikusi duzu euskal prentsaren garapena urte hauetan?

Ez dut ondo ezagutzen, noizean behin hartu ditut egunkari eta aldizkari batzuk, ez dut ezagutzen euskal irratiarik edo telebistarik. Dena dela, Berriaren aleren bat hartzen dudanean harrigarria egiten zait kalitatea. ARGIA ere oso ondo egiten da. Fisikoki ondo daude, testuen aldetik ere nahiko ondo, hizkeraz aparte, irekiak eta kritikoak. Askoz irekiago eta kritikoagoa iruditzen zait euskal prentsa, espainola eta ezagutzen ditudan beste herri batzuetakoak baino. Hurbilagotik defektuak ikusiko nituzke igoal.

Zer eragin dute berauek zure bizitzan?

Ene bizitzan ez dute eragin handirik. Hor anuntziatzen diren kontzertuak nik irakurtzen ditudanerako pasatuak dira, baina paperok datozeneko planeta arraro horretakoa naizela oroitarazten didate. Eta beno, poz apur bat ere ematen dit, nik sasoi batean egin nahi nituen gauza batzuk beste batzuek egin dituztelako nik egin nitzakeen baino hobeto.

Akordatzen al zara nerabe garaian nola imajinatzen zenituen 2000.eko urteak?

Ba literaturarekin imajinatzen genituen, ezta? George Orwellen 1984, Stanley Kubricken 2001 Odisea moduko hipotesi hiperbolikoekin, baina bagenekien hiperbolikoak zirela, eta errealitatea azkenean arruntagoa izango zela pentsatzen genuen, askoz aspergarriagoa. Eta esan behar da, ez direla Orwell edo Kubricken aurreanak konplitu, errealitatea oraingoz bestelakoa dela, baina den bezalakoa ere imajinaezina zela orain dela 25 urte. Eta errealitatea bera ere oso hiperbolikoa dela, pasada hutsa dela. Iparramerikarrek Afganistan eta Irak horrela gobernatu nahi izatea, esate baterako, hegazkinetatik jaurtiriko lehergailuekin, ez errealitateak baizik eta fikzioak asmatzeko moduko gauza zen.

Zertan dute antza orduko gomutek eta gaurko gogoetek 2000.eko urteen gainean?

Ba... progresistak ginen, ezta? Beno, mundu guztia da progresista, denok dugu mundua apurka-apurka baina hobera doala sinesteko joera hori, hobera zentzu ekonomikoan eta zentzu moralean, astiro eta atzera-aurre askorekin, baina azken batean hobera, eta bai orduan eta bai orain ebidentzia asko azaltzen dira ideia nagusi horren kontra, ezta? Iraultza industrialak teknologian eta aberastasunean aurrerapen gehien ekarri zuenean 1914ko gerrako sarraskiak gertatu ziren. Eta teknologiaren hobekuntzari esker egin ziren Hiroshimakoa eta atzoko Irakeko eskualde horretako bonbardaketak. Orduan, progresistak gara denak, eta hor dago aspalditik inkoherentzia hori, progreso moralari buruzko zalantza ikaragarri hori.

Amerikako Estatu Batuetako Konstituzioak, hiritarren helburua "zoriona" lortzea dela dio. Ideia hori oso arraroa da, oso aldrebesa, pentsatzea negozio eta aberastasunaren bidez lortzen dela "zoriona", edo ordezkari politikoaren bidez. Nik ezagutu dut jende pobre-pobrea oso alaia eta bizitza gozatzen. Eta ezagutu ditut aberatsak bizitzeko gogoia guztiz galduta. Pobreia izatea ez da inolaz ere hobea, baina esan nahi dut ezartzen zaigun gizarte eredu hau, diruaren inguruko bizimodu mendebaldar hau azkenean oso miserablea izan daitekeela.

"Thes egitea zilegi balitz nunbait balego bakea, ni ez nintzateke...". "Thes egitea zilegi balitz urra ahal baledi katea, ni ez nintzateke..." dio kantuak. Zu zer izango zinen edo zer ez zinen izango?

Ba ez dakit, ez nintzen izango polizia, ez politikoa. Izango nintzen... Athleticeko futbolista ere ez dut uste.

Zure argitalpenetan, elkarrizketa nahiz liburuetan, zure zuri-beltzeko argazki bat edo beste agertzen dira. Bakarrak. Ezagutzen al duzu zure burua berauek ikustean?

Ez dakit, ispiluek eta erretratuek iruditzen zait endredatzen dutela jendearen ikuspegia. Pertsona ez dago bere buruari begiratzeko egina. Erretratuko pertsona hori nik ez nuen ezagutu. Erretratu hori atera zuen laguna bai ezagutuko nuke ondo, orain dela hogeit hamar urte ez dudala ikusi eta gustura besarkatuko nuke; gero esango nioke, oraingoan kamara etxean utzi duzu ezta? Ez izateko beste hogeit hamar urtez beste irudi bat, itzal edota bahitu hori. Pertsona, berak ikusten duena da, dituen lagunak, harreman naturalak beste jende horrekin egiten dira. Orain beste batzuk ikusten ditut, baina ez ditut haiek ahaztuan, eta gustura besarkatuko nituzke orduko lagunak.

Nor zaren galdetzen ote diozu zure buruari? Zer erantzuten diozu?

Ba ez diot galdetzen, ze galdera tontoa litzateke, ezta? Esan gabe ere badoa, oiloa oiloa den bezala, ni Euskal Herriatik aldeginako euskalduna naiz, polizia espainolak harrapatu nahi ninduelako. Ez naiz bakarra, ni bezalako asko dabilta munduan zehar, eta orain dela ehun eta hogeita hamar urte ere ibili ziren, eta orain dela hirurogei urte. Ez naiz batere berezia alde horretatik. Idazle legez ere, konfesatu behar dut hamazazpi urte nituenetik idazten dudala, baina horretan ere ez naiz batere espeziala, pentsa zenbat idazle dagoen Euskal Herrian bertan. Pertsonalitate krisian daude editorialak, idazleak irakurleak baino gehiago izango garelako laster.

Zure irakurleek zutaz imajinatu edo pentsa dezaketenak "arduratzen edo kezkatzen" al zaitu?

Normalean ez, baina Euskal Herria eta mundua hain aldrebes dagoen sasoi honetan, igoal arduran hartzeko gauza izan daiteke. Euskaldunak satanizazio gai izan gara azkeneko urteetan, espainolen aldetik esan nahi dut. Irudi faltsuak zabaldu dira, eta aurreritziak. Gainera, ez dakit konturatzen zaren, baina satanizazio egoeretan gauza arraro bat gertatzen da, fabulakoaren antzekoa, ardien artean ardi bat beltza da eta ardi beltz horri otsoa deitzen diote batzuek, ardi horrek beltza dela esango du hasieran, baina beste ardiek otsotzat ematez eta denborarekin, ardi beltzak otsotzat hartzen du bere burua, ardi zuriak jaten hasteraino. Esan nahi dut, inpresioa dudala, espainolek gutaz esaten dituzten gezur batzuk sinestu eta asumitu ditugula. Eta lehenago euskaldunek "arloten"aren papera asumitu zuten bezala, edo gero beste batzuek "indartsu"aren papera, asumitzen

ditugula orain batzuetan ere "biolento"aren edo halako beste paper batzuk, azken batean geure kontrarioaren kreazioa direnak. Ez dakit erantzun dizudan, esan nahi dut irudi faltsuz kargaturik bizi garela. Nitaz pentsa dezakeena jendeak, ni hogeitabost urtetan ikusi gabe eta kartelak ikusten, ba imajinatu. Baina, iruditzen zait espektakuluaren mundu honetan konfusioa orokorra dela.

Imajina ezazu euskal literatura paisaia gisara. Zer iritzi duzu paisaia horretaz? Nola ikusten duzu zure burua paisaia horretan?

Ba ez dakit, batzuetan gustatzen zait eta bestetan ez zait batere gustatzen, eta desberdina dena, batzuetan maite dut eta bestetan ez dut hainbeste maite. Basque landscape tipikoa imajina daiteke, fabrika bat, tximiniatik kea dariola, bizikletaz lohihartzekoarekin itzultzen den langilea, han atzean mendia, landa berdean behi bat, albokari bat ere jar dezakezu hor Otxarkoagan balitz bezala, eta ez dakit, oso 70's, ezta? Eta koadro horretan ba, ni, horretarako egin behar duzu gure eskola denborako mapetan egiten zutena Kanariak eta Ifni sartzeko, eta Fernando Poo, koadrotxo bat bazterrean. Euskal paisaiatik apur bat aparte eta ordu diferentearekin, eta ni ba hor izkina horretan trankil, in angulo cum libro, paper zahar batzuk leitzen.

Behinola Bernardo Atxagari konpromisoaz galdeturik testuinguruan zu zeu ere hizpide izaki Atxagak zu zeu euskal literaturaren aristokratizat jo zintuen. Zer duzu esateko?

Euskal igualitarismotik ihes egin behar eta, orain lumpen hutsa naiz. Broma da, baina ideia ez da hutsala, ez dakit konturatzen garen, euskal literaturaren historia errepatatuz gero euskal idazleak oso gutxi izan direla oraintsu artean, eta gutirentzako lanean, Santxo Jakintsuaren gortesarentzat bakarrik, irakurtzen zuen populuak erdaraz irakurtzen zuelako literatura popularra. Euskal idazleak elitistak izan gara derrigorrez eta, zailagoa da Raymond Chandler edo Rubem Fonseca bezala idaztea, orain arte euskal estiloak ere apur bat aristokratizanteak izan dira...

Literatura idazteko leku pribilejiatua al da zurea?

Ba ez dut uste.

Literatura bizitzeko berriz?

Ez dakit zer den literatura bizitzea. Literaturaren espektakulua ez dut ezagutzen, ez dut egundo aurkeztu libururik esate baterako. Literatura bizitzea bizitzari zentzu apur bat ematea baldin bada, liburuetako pertsonaiek egiten dutela ematen duen bezala, ba nahi nuke bizitzak zentzu apur bat izatea, baina hori liburua amaitu arte ez da jakiten.

Zertan zara madarikatua? Zertan pribilejiatua?

Pribilejioa, ez dudala etxerik izan azken hogeita bost urtetan. Eta maradikazioa, ba, ez dudala etxerik izan azkenengo hogeita bost urteotan.

Iraganeko "izuen gordelekuak" eta gaurko "gordelekuaren izuek" badute elkarren antzik?

Hura fantasia zela uste dut, ezta? Eta honek ere geroago eta handiago du fantasiaren antza.

Zer bilakatu da literatura zuretzat? Plazer iturri edota bizipoza? Halabeharra? Halabeharrezkoa?

Plazer iturriarena ez, iturriak ura ematen du, hori lehortea ez denean. Literaturan "plazerra" aipatzea, Ipar Amerikako Konstituzioaren "zoriona" bezala, lelokeria da, nik behintzat ez dut konprenitzen zertaz ari diren. Paradoxa edo ironia legez konprenitzen da bakarrik, Roland Barthesen titulu bezala.

"Gartzelako poemak" gogoan, poesia -genero hertsian ulerturik- iragana al da zuretzat?

Ez, poesia idazten jarraitzen dut. Beste liburu bat, Hny illa nyha majah yahoo argitaratu zen gartzelako poesiaren ondoren, baina konprenitzen dut inork aipatu nahi ez izatea. Eta orain Itzuli ezinak deitzen den liburu bat ari naiz amaitzen. Jendeak gutxiago irakurtzen du poesia, baina literaturaren fundamentuak hor daudela iruditzen zait.

Imajinatzen duzu "mundu normalera" zure itzulera?

Ni ere mundu normalean bizi naiz gero, nahiz eta beste parte batean. Euskal Herrikoa ez da mundurik normalena izango, euskaldunak ere nahiko arraroak zarete. Baina ez dakit zelan gerta daitekeen itzultzea, imajinazioak ere bere mugak ditu.

Zein ondasun bil zenezake denok agindu nahi dugun "gure mundu" honetan?

Nahiko lumpen naiz eta ez dut ondasun handirik. Susmatzen dut hiruzpalau liburu izango direla utziko dudana oinordean.

Oroitzen duzun zerbait ahaztea nahiago ote? Akordatzen ez zaren zerbaitetaz gogoratu nahiko al zinateke?

Ahaztu ez dakit, gertatzen direnetatik hainbat gauza gertatu ez balira hobe. Baina ondo dago akordua, halako gertaerak errepika ez daitezen.